Berrie-Mile

2024ko urtarrila- apirila





Miguel Altuna LHIIko egunerokotasuna biltzen duen aldizkaria

EDUKIAK

SARRERA

IKASLEAK LEHIAKETETAN

ELKARRIZKETA: SPAINSKILLS LEHIAKETA

ELKARRIZKETA: ABDALAHI SLAMA

ALBISTE IZAN DA

MIGUEL ALTUNAKO KULTUREN FESTA

IKASLEAK ENPRESAN

JARDUNALDI ETA KONGRESUAK

DIRUZ-LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

24-25 IKASTURTEA

KONTAKTUA

SARRERA



Badugu Miguel Altunako BerrieMAlleren 8.alea

Bertan, ikastetxean albiste izan diren gaiak, elkarrizketak, etab. formatu era berrituan aurkituko dituzu.



Ya tenemos el 8º newsletter BerrieMAlle de40 Miguel Altuna

En ella encontrarás, temas de actualidad en el centro, entrevistas, etc. en un formato renovado.

IKASLEAK LEHIAKETETAN

Oier Soto eta Mikel Sanchez, Miguel Altunako ikasleek, zilarrezko domina irabazi dute SPAINSKILLS 2024 lehiaketako Mekatronika modalitatean

Oier Soto y Mikel Sanchez, alumnos de Miguel Altuna, medalla de plata en Mecatronica en la competición SPAINSKILLS 2024









Santanderren ospatu zen estatuko Torneatze Lehiaketan, Miguel Altunako Mayder Medina ikasleak 3.postua lortu du.

En el Campeonato estatal de Torneado celebrado en Santander, la estudiante de CIFP Miguel Altuna Mayder Medina, ha ganado el 3º puesto.







ELKARRIZKETAK

SPAINSKILLS lehiaketan parte hartu duten Miguel Altunako ikasle eta irakasle taldeen esperientzia ezagutu nahi?



<u>Noiz hasi zineten lehiaketa hau prestatzen?</u>

Oier Soto: 2. urtea hasi ginenean.

Mikel Sanchez: Ez dakitt konkretuki noiz izanzan baina pruebetako maketak jakin barik goi mailako 2. urte hasieran irakasliak maketak emuten hasi zian eta Soto ta bixok maketak desmontaitten montaitten ta programaitten ibili giñan, Spainskillseko pruebak simulaitteko, gero ia festokuak maketak publikau ebeiñian, 3 hilabetetxo euki geben gutxi gora behera ondo preparaitteko, eta gure erronka danak Spainskills-etako maketekin izan zian.

Ion Mikel Urizar: Madrilera joateko bidea lehenik, 2023. urteko martxoan hasi genuen, eskolan bertan egin genuen mini lehiaketa batekin hasi zen. Automatizazio eta Robotika Industrialeko 4 ikasle aukeratu genituen eta hauetatik 2 aproposenak hautatu genituen EuskoSkills konpetizioan Miguel Altuna ordezkatzeko.

Haritz Odriozola: Orain dela urtebete pasa hasi ginen EuskoSkillsak prestatzen. Azkenean prueba antzekoak dira, eta hango entrenamentua ere kontutan izan behar dela uste dut. Spainskills irailetik prestatzen ari gara: Ikasleak beste ikasleekin batera egin dute ikasturte guztia, baina beraien erronketan beti egon da zerbait SpainSkillsetarako prestatzeko baliogarria. Azkenengo pare bat hillabete izan dira maketak zein izango diren jakin eta pruebak bereziki prestatzen ibili garenak. Baina aurretik lan asko eginda geneukan.



Iosune Irazabal: Nere kasua desberdina da, nere ardura ez da lehiaketa prestatzea baizik eta LHko Euskal Selekzioaren osaketa eta antolakuntza Hori dela eta 2023ko urtarrrilean martxan neuan, maiatzean Ficoban ospatuko ziren EuskoSkillsak prestatzen.
EuskoSkillsetan urrea irabazi zutenekin LHko Euskal Selekzioa osatu genuen begirada Spainskillsetan jarriz. Skillsak olinpiada formatoa dute eta lehia ez da makala izaten .

<u>Nola ikusten duzue lehiaketa hau? Zer moduzko esperientzia izan da?</u>

Oier Soto: Oso ondo ikusi nintzen lehiaketan, asko ikasten da baina presio asko da.
Mikel Sanchez: Lehiaketako esperientzia oso ona izan da, nere kasuan bentzet ikusi dotelako zetarako gai naizen. Aparte Espainiako leku desberdinetako gure moduko jendiakin ibili gara eta atzenian danak lagunak in gara beraz dana oso ondo. Bestalde, lehiaketan nere burua oso ondo ikusi dot zentzu danetan, ez naiz jarri ez nerbioso ez ezebe, baina momentu kritikua zuzentzerako ordua zan, bixok geukagulako bildur bat zeoze gaizki irtetiak.

Ion Mikel Urizar: Lehiaketa honek gure ikasleei beste erkidegoetako beste ikasleekin lehiatzeko grina sortzen die. Euren burua beste ikasle batzuekin konparatzeko aukera ematen die eta klasien landutako trebeziak neurtzeko aukera ematen zaie.

Haritz Odriozola: Niretzat lehenengo aldia zen SpainSkillsetan parte hartzen nuela, eta oso esperientzia polita izan dela esango nuke. Asko disftutatu dut esperientzia. Oso nekagarria ere izan da, eta emozioz betea ere bai: Pozak, ilusioak, frustrazioak eta "haserreak" ere bai, euforiak, bajoi momentuak...denetik. Baino gero ikasleek Madrilen egin zuten lan bikaina ikusita merezi izan duela irufitzen zait, zentzu guztietan.
Iosune Irazabal: Oso lehiaketa polita da, LHko aberastasuna irudikatzen duen lehiaketa hain zuzen ere . Bertan 29 modalitate eta 5 demostrazio egon ziren eta erkidego guztietako 500 ikasle baina gehiagok parte hartzu dute .
Ikasteko aukera paregabeaz izateaz gain, bai gure arteko eta beste erkidego batzuekin harremanak sendotzeko balio izan digu.

<u>Zein ekarpen egiten ikasleei lehiaketa honek?</u>

Oier Soto: Esperientzia asko eta arazoren bat aurrean soluzioak azkar bilatzea.



Mikel Sanchez: Nere kasuan bentzet lehiaketa honek erakutsi doztana da, konpetiziñuan aldetik naiz eta torneo baten egon eta irabaztia gura, onena dala ezauketan dozun jentia eta amistade horreik, gero eurekin fatia zeoze harzera eta hori dana. Eta gero hori lehen esan dotena lehiaketa honekin ikusi dotena, ze itteko gai naizen gauzak aurrera atarateko eta nere buruakin konfiantzia eukitteko.

Ion Mikel Urizar: Pertsonalki oso esperientzia aberasgarria. Gure ikasleek euren buruarengan duten konfiantza maila era ikaragarrian sendotzen dute. Madrilen bizitako egun hauek bizitza osoan gogoratuko dituzte, bertan beste partaideekin sortutako benetako lagun giroa, bizitako urduritasunak, negarrak eta pozak,...

Haritz Odriozola: Ikasleek erantzun beharko lukete hori; baina nik uste dut gauza asko aportatu dizkiela. Alde betetik Madrilera joateko esperientzia, han bizi izandako aste osoa, egindako lagunak...Bestetik, eta nik uste hori baino garrantzitsuagoa, ikasi dutela lan, sakrifizio, dedikazio askorekin oso oso emaitza onak lortzeko gai direla ikusi dutela, eta hori oso motibagarria iruditzen zait beraien bizitza pertsonal zein profesionalerako.

Iosune Irazabal: Intentsitate haundikoa , emozioz betetakoa: Urduritasuna, poztasuna , tristura ... baina emozio guztien gainetik harrotasuna goraipatuko nuke, gure ikasleek erakutsi duten jarreraz eta jakintzaz harro.

ELKARRIZKETAK

SPAINSKILLS lehiaketan parte hartu duten Miguel Altunako ikasle eta irakasle taldeen esperientzia ezagutu nahi?



Zailtasunik izan duzue? Badaukazue pasadizoren bat kontatzeko?

Oier Soto: Asko, egun batzuetan entrenamendua gaizkI ateratzen bazan, gure buruaK oso gaizki jokatzen ziguN.

Mikel Sanchez: Gure kasuan dana ondo geukagula prestauta, ez du zailtasunik euki; Bai azkenengo prueban, prisaka ibili giñela, prueba asko in eta gero, eta ikusitta ondo zoiala, zuzenketia in nozkueiñian, sartu ebeiñ pieza sekuentzia bat ez gebena probau. Eta justo fallau inozkun bi maketen arteko komunikaziñuak tenporizadore batengatik.

Ion Mikel Urizar: Lehiaketa guztiak bezala, aurrera xamar ibiltzeko, horren atzetik lan asko dago eta bidean akaso, gauzak ez dira oso garbi kusten.

Haritz Odriozola: Zailtasunak asko. Ba alde batetik klaseko denboraz gain, entrenatzen egon direla egon batzutan, eta biak DUAL lanean ari direnez, ba asko zailtzen zuen horrek gauza. Bestetik momentu baju batzuk ere pasa ditugu, emaitzak ez zirela uste bezain onak ikusten genuenean...Bi ikasle izanda, biak 'ekipo' sentitzea ere garrantzitsua da...beraien arteko harreman ona mantentzea...momentu bajutan elkar motibatzea...
Eta Madrilera joan ginenean, lanak eginda zeuden, baina urduritasunak gain ez hartzea ere lan haundia izan zen. Batez ere azkenengo frogan, oso ondo geundela bait genekien, eta hain gertu ikusita irabaztezko aukera zeukatela, ez da batere erraza lasaitasuna mantentzea.

Iosune Irazabal: Lehiaketa ondo joan zan, azken momenturarte urrearen lehian egon giñen.
Pasadizoren bat kontatzerakotan lehiakideen arteko harremana isladatzen duena kontatuko nuke.
Sari banaketan, Castilla eta Leoneko ikasleak (urreak) podiumera igo zirenean behatzarekin bata ikurra eginez gure ikasleak seinalatu zituzten, bizi izandokaren islada, ikasle arteko lehia gogorra baina kiroltasunez jokatuta.

Gomendatuko zenukete? Zergatik?

Oier Soto: Erabat gomendatuko nuke, esperientziarengatik eta gainera ikasten duzun denak gero lanerako asko balio duelako, baina gogoarekin joan behar zara.

Mikel Sanchez: Duda barik, esperientzia berri eta bakarra izan ahal dalako, naiz eta irabazi edo galdu, beti eukikozu rekuerdo batzuk eta gainera jende asko ezautukozu. Gainera torneo honeittarako preparau inbidanez, gauza berri asko be ikasten dia.



Eta orain zer?


Oier Soto: Orain nire lanean segi programatzen eta gehiago ikasten.
Mikel Sanchez: Nere kasuan bentzet, oin Ia bastante harro nau nere buruakin eta taldiakin zilarra lortziagatik Espainia mailan. Asko ikasi dot, jende asko ezautu dot eta oso pozik, ba aurrera ittera eta gehixau ikastera lanian.

Ion Mikel Urizar: Hemendik aurrera, nire kasuan datorren urteko Euskoskills konpezioa antolatu eta gure selekzioa ordezkatuko duen Mekatronikako bikoterik onena aukeratzea izango da.

Haritz Odriozola: Orain ikasle hauen Skills ibilbidea amaitu da, SpainSkills irabazten duena bakarrik joaten baita WorldSkills eta EuroSkillsetara... Datorren ikasturtean beste bi ikasle berrirekin ea joaten garen berriro EuskoSkillsetara.

Iosune Irazabal: 2024ko esperientzia hemen bukatzen da baina laiser 2026ak prestatzen hasiko beharko gara!

GURE IKASLEAK



Abdelahi Salama Lala.
Jaiotzez Sahararra da eta duela 16 urte iritsi zenetik, Bartzelona eta Sevilla bezalako hirietan bizi ondoren, gaur egun, Aretxabaletan bizi da. Miguel Altunako Debagoiena Lanena egitasmoko Biltegi Kudeaketako ikaslea da.

Abdelahi Salama Lala
De nacimiento es Saharaui y desde hace 16 años, ha residido en ciudades como Barcelona y Sevilla y actualmente vive en Aretxabaleta y es estudiante del curso de Gestión de Almacén (Debagoiena Lanean) en el Miguel Altuna.

Recientemente ha publicado el libro "AMISTAD".

¿De dónde salio la idea de escribir este libro?

Desde siempre me ha gustado leer libros y novelas policiacas. Recientemente me puse a leer novelas románticas también. La inspiración para este libro me ha venido desde Auzoko de Aretxabaleta. Tengo dos amigas que hace como un años escribieron también sus libros y desde allí surgio la idea.Aparte de escribirlo porqué no publicarlo también. Me inspiraron y también me han ayudado en sacarlo adelante.

¿De qué trata el libro?
Habla sobre la amistad y tiene un poco de acción romántica. De los compromisos, cómo cambian las amistades en los diferentes momentos de la vida…

¿Cómo ha sido la publicación de este libro?
Lo publicamos justamente antes de las vacaciones de Semana Santa, en abril. Me han ayudado unos amigos para poderlo realizar y me ha sorprendido cómo se está vendiendo siendo la primera vez que he publicado.
Una vez que encuentre un trabajo, creo que seguiré escribiendo y espero publicar más libros.

¿Cómo se puede obtener este libro?
De momento, contactando directamente conmigo (watsapp: 615682993), en la tienda Ingou de Arrasate o en el Kiosko Willy de Aretxabaleta.



ALBISTE IZAN DA



Miguel Altunako ikasleek Ikasenpresa kongresuan negozio ideiak aurkeztu dituzte

Alumnado de Miguel Altuna ha presentado sus ideas de negocio en el congreso Ikasenpresa



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari esker odola emateko aukera izan dugu.

Gracias a la Asociación de Donantes de Gipuzkoa hemos tenido la oposibilidad de donar sangre.



Urtarrilaren 26an San Juan Bosco eguna ospatu genuen

El 26 de enero celebramos el día de SAN JUAN BOSCO



Martxan da Miguel Altunako escape room eraberritua

En marcha la reformada Escape Room Tecnológica de Miguel Altuna

ALBISTE IZAN DA



DMG MORI makina ekoizlearen Alemaniako planta bisitatu genuen

Visitamos la planta alemana del fabricante de máquinas DMG MORI



Zentro Integratuaren esparruko erronka teknologikoei aurre egiteko, Hezkuntza eta Enpleguaren arteko lankidetza-bide berriak

Nuevas vías de colaboración entre Educación y Empleo para afrontar los retos tecnológicos en el marco del Centro Integrado



Fabrikazio Automatizatuko Bikaintasun Ikastetxeetako ordezkariak Jaenen bildu ginen

Representación de los Centros de Excelencia en Fabricación Automa tizada nos reunimos en Jaen



Europako herrialde desberdinetako ordezkaritzak Euskadiko LH eredua ezagutzen

Delegaciones de diferentes territorios Europeos conociendo el modelo de FP de Euskadi

ALBISTE IZAN DA



1PMko ikasleak Urratsbat programaren barne, Ekintzailetza Teknologikoaren inguruko saioan

Alumnado de PM en la jornada de “Emprendimiento Tecnológico”, Programa Urratsbat,



Olazabal BHIko LHko Azoka Txikian parte hartzeko aukera izan dugu

Hemos tenido la oportunidad de participar en la Feria de FP “Azoka Txikia” de IES Olazabal



Lanbide Heziketa eredu berria ezagutzeko ekitaldian izan gara

Hemos participado en el acto de presentación del nuevo modelo de FP



Lehen Sorospenei buruzko formazioa teoriko praktikoa Mariaren Lagundiako ikasleekin

Formación teórico-práctica de Primeros Auxilios con el alumnado de Mariaren Lagundia

ALBISTE IZAN DA



TVEeko "El lenguaje de las máquinas" saioan azaldu gara

Miguel Altuna en el programa "El lenguaje de las máquinas" de TVE



Garapen Iraunkorren Helburuei lotutako 1.go lehiaketa egin dugu

1º Concurso de Objetivos de Desarrollo Sostenible



Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatu genuen otsailaren 11n

El 11 de Febrero, celebramos el Día Internacional de las Mujeres Científicas



Nesken presentzia maskulinizatutako Lanbide Heziketan

Alumnas en la FP más masculinizada

ALBISTE IZAN DA



Mundu birtualak, gero eta errealagoak, Teknopolis saioan

"Mundos virtuales cada vez más reales", en el programa de Teknopolis



BEART Elkarteko Xabier Agirrek artelana oparitu digu

Xabier Agirre de la Asociación BEART nos ha regalado una obra de arte



Renewable Energy Renewable Earth proiektuko lan-taldea bildu gara

Reunión de los participantes del proyecto Renewable Energy Renewable Earth



‘SpainSkills LHko olinpiadak prestatzeko EAEko koordinatzaile eta tutoreak estres froga landu zuten

Coordinadores/as y tutores/as de la CAV han estado trabajando en la prueba de estrés para las olimpiadas de FP SpainSkills

ALBISTE IZAN DA



Praktikak atzerrian egiten ari diren ikasleek Bilboko Erasmus+ ekitaldian parte hartu zuten

El alumnado que está realizando sus prácticas en el extranjero, participó en la jornada Erasmus+ celebrado en Bilbao



LH DUALa aurkeztu zitzaien 1.mailako ikasleei

Presentación de la FP DUAL al alumnado de 1º curso



INUM musikariaren saioa izan genuen Miguel Altunan

Tuvimos la actuación del músico INUM en el Miguel Altuna



Zuzendaritzari Laguntzako ikasleak Esloveniako ikasleekin elkarlanean

Alumnado de Asistencia a la Dirección colaborando con el alumnado de Eslovenia

ALBISTE IZAN DA



LCAMP konferentzia Aalenen eta Ikas-Fabrikaren aurkezpena

Presentación de la conferencia de LCAMP de Aalen y de “Ikas-Fabrika”



Fabrikazio Automatizatuko Bikaintasun Ikastetxeetako ordezkaritzen bilera izan genuen Burgosen

Reunión en Burgos de la representación de los Centros de Excelencia en Fabricación Automatizada



Miguel Altunako Denisse Guillen ikaslea, mekanizazioan erakutsi duen mailagatik Biba Zuek saioan

La alumna de mecanizado de Miguel Altuna, Denisse Guillén, entrevistada en el programa Biba Zuek por su nivel en mecanizado



Korrikako 22.edizioan parte hartu dugu. HARRO HERRI

ALBISTE IZAN DA



Suediako Cur tNicolin Gymnasiet ikastetxeko ikasleak gure Instalazio Elektriko eta Automatikoetako ikasleekin elkarlanean

Estudiantes de la escuela sueca Curt Nicolin Gymnasiet ha estado trabajando junto con el alumnado de Instalaciones Eléctricas y Automáticas



Enpresa kultura berrien aurkezpena ikasleekin

Presentación de las nuevas culturas empresariales



Mexikoko CUDEC Unibertsitateko ordezkaritzaren bisita jaso genuen

Recibimos la visita de la Dirección de la Universidad CUDEC de México



Fabrikazio Automatizatuko Bikaintasun Ikastetxeetako ordezkaritzen bilera eta Fabrikazio Aurreratuko azokan izan gara

Reunión de la representación de los Centros de Excelencia en Fabricación Automatizada y visita a la feria de Fabricación Avanzada

ALBISTE IZAN DA



Estatu Batuetako LHko 15 ikastetxeetako ordezkaritza, Euskadiko Lanbide Heziketa ezagutzen izan ditugu

Delegación de 15 centros de FP de EEUU, ha conocido la Formación Profesional de Euskadi



STEAM formazioa sustatzeko lanean dihardugu Bergarako Udalarekin eta eskualdeko enpresekin elkarlanean

Seguimos fomentando la formación STEAM en colaboración con el Ayuntamiento de Bergara y las empresas de la comarca



Xabier Astigarraga eta Xabier Bastida irakasleek, ziklo industrialetarako Multzo Hidraulikoak bideoa egin dute, Lanekik babestuta

Los profesores Xabier Astigarraga y Xabier Bastida han realizado un vídeo sobre el Grupo Hidráulico para ciclos industriales, patrocinado por Laneki.



Austrian izan gara Industry 4.0 eta AM Fabrikazio Gehigarrian erreferenteak diren Unibertsitate Tekniko eta Enpresak ezagutuz

Hemos estado en Austria conociendo las Universidades Técnicas y Empresas referentes en Industry 4.0 y AM Fabricación Aditiva

MIGUEL ALTUNAKO KULTUREN ARTEKO FESTA OSPATU DUGU

HEMOS CELEBRADO LA FIESTA INTERCULTURAL DE MIGUEL ALTUNA
























IKASGELAKO EDUKIAK LANTZEN ENPRESAK BISITATUZ












JARDUNALDI ETA KONGRESUAK



Languages Lanean kongresuan, hezkuntza eta lan-munduari buruzko mahai-inguruan parte hartu dugu

Hemos participado en una mesa redonda sobre educación y el mundo laboral en el congreso Languages Lanean



‘Genero-berdintasunari buruzko nazioarteko webinarrean: “Tokiko eta eskualdeetako lan-merkatuan eta hezkuntzan genero-berdintasuna sustatzea”

Hemos participado en el webinar internacional sobre igualdad de género



LH DUALa euskaraz ekitaldian aitortza jaso dugu Copreci enpresarekin batera

Reconocimiento en la jornada “LH DUALa euskaraz junto a la empresa Copreci



Lehen Sorospenei buruzko formazioa teoriko praktikoa Mariaren Lagundiako ikasleekin

Hemos recibido el curso de Primeros Auxilios gracias al alumnado de Mariaren Lagundia Ikastola

JARDUNALDI ETA KONGRESUAK



ENPRESARE Elkartearen jardunaldi berezia izan dugu

Jornada especial de la Asociación ENPRESARE



‘Bailarako enpresak eskolan izan ditugu profil profesional desberdinei buruzko saioak eskaintzen

Las empresas de la comarca se han acercado al centro para ofrecer sesiones sobre diferentes perfiles profesionales



Global Power Platform Bootcamp Euskadi 2024an parte hartuko dugu

Participamos en el Global Power Platform Bootcamp Euskadi 2024



LHko zaintza nodoak. Ondorioen transferentzia saioa izan genuen

Nodos de la FP. Sesión de transferencia de conclusiones

JARDUNALDI ETA KONGRESUAK




GOIAZ!2024 Debagoieneko LHko azokan parte hartu genuen

Hemos participado en la feria de la FP de Debagoiena Goiaz!2024



LCAMP eta Bridges 5.0 proiektuei lotutako aurkezpenak egin ditugu EU4DUALeko urteroko konferentzian

Hemos realizado presentaciones relacionadas con los proyectos LCAMP y Bridges 5.0 en la conferencia anual de EU4DUAL



ADEGIk antolatutako LH DUALeko instruktoreen formazio saioetan parte hartu dugu

Hemos participado en las sesiones de formación para las personas instructoras de la FP DUAL



Sevillan FP Empresak antolatutako Lanbide Heziketaren kongresuan parte hartu dugu

Hemos asisitido al congreso de Formación Profesional organizado por FP Empresa en Sevilla

DIRUZ-LAGUNDUTAKO IKASTAROAK
CURSOS SUBVENCIONADOS

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

lanbide EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA SERVICIO VASCO DE EMPLEO

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
	DENOMINACIÓN	ORDUAK	DATAK
UF0876	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAGIKOA. Planoen irakurketa.	60	2024/05/06-2024/06/04
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK,TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2024/09/23-2024/11/05
UF0883	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2024/06/05-2024/06/18
FMEH0075OH	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA	30	2024/05/06-2024/05/17
UF0879	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA	80	2024/11/06-2024/12/19
FMEM0011OH	CAM NX (2 1/2 Y 3 ARDATZ FRESAGAILUAN)	40	2024/10/21-2024/10/30
FMEC0002	ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA	20	2024/05/06-2024/05-16
FMEH0026OH	FANUC MANUAL GUIDE BIDEZ LAGUNDURIKO PROGRAMAZIOA	20	2024/05/13-2024/05/28
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE003PO	ELEKTRIZITATEAREN OINARRIZKO OINARRIAK	60	2024/05/06-2024/06/05
UF0885	ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	2024/10/14-2024/11/27
ENAE0005OH	EGUZKI ENERGIA, INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN OINARRIAK	40	2024/11/28-2024/12/19
ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA			
UF0314	KONTABILITATE KUDEAKETA	90	ZEHAZTU GABE
UF0343	SOLDATA-ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	80	ZEHAZTU GABE
BESTEAK			
COML003PO	ORGA JASOTZAILEEN ERABILERA	8	2024/05/13-2024/05/15
COML0006OV	ZUBI GARABIEN ERABILERA	6	2024/04/22-2024/04/24
	LEHENTASUNA: LANGABETUAK - GAITASUN ZIURTAGIRIAK		
FMEE0108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	440	2024/04/29-2024/11/11
ENAE0108	INSTALAZIO FOTOBOLTAIKOAK	540	2024/10/07-2025/03/25

Agirrebidea 2, 20.570 Bergara (Gipuzkoa) Tef: 943 899 272 – 688 815 070 ikastaroak@maltuna.eus

Lanbidek diruz-lagundutako ikastaroen zerrenda prest izan dugu. Ikastaro bila bazabiltza, deituguzu eta informatuko zaitugu.

Ikastaro zerrenda - Listado de cursos

943 899 272 - 688 815 070

ikastaroak@maltuna.eus

24/25 IKASTURTEA



24/25 ikasturterako Lanbide Heziketarako AURREMATRIKULAZIOA: Maiatzaren 6tik 24ra.

Dagoeneko 24/25 ikasturtea prestatzen hasiak gara eta zuk ere ikasten jarraitzeko asmoa badaukazu, bi data hauek gordetzea gomendatzen dizugu:

Miguel Altunako ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA: Maiatzaren 7an izango da (hitzordua www.maltuna.eus orrian hartu dezakezu)


AURREMATRIKULAZIO EPEA maiatzaren 6tik 24ra izango da, biak barne.

Hitzordua hartzeko:

www.maltuna.eus orriaren bidez egin dezakezu.

INFORMAZIO GUZTIA:
www.maltuna.eus edo info@maltuna.eus

(LA NOTICIA EN CASTELLANO)





KONTAKTUA

Zer iruditu zaizu aldizkari hau?
Iritzia eman edo ekarpenen bat egiteko, idatziguzu **komunikazioarduraduna@maltuna.eus** helbidera.

688 815 070

ESKERRIK ASKO!

Info+: **www.maltuna.eus**